

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Alloko zonaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari eta Paumari eman die Gizarte Zerbitzuen Kalitatearen Saria

Alli kontseilariak erabiltzaileen arretan eta enpleguaren kalitatean jardunbide egokiak ezartzea aitortzen duen saria banatu du

Martes, 11 de diciembre de 2012

Gizarte Politiken kontseilari Iñigo Alli Martínez-ek Gizarte Zerbitzuen Kalitatearen 5. Saria eman die gaur eguerdian [Alloko zonaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari](#),

"Erabiltzaileak diren pertsonentzako arreta" mailan, eta [Pauma SLri](#) "Enpleguaren kalitatea" modalitatean.

Ekitaldia Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretoan ospatu da, eta bertan parte hartu du ere [Tomás y Lydia Recari fundazioko](#) lehendakariorde Miguel Echarri Garcíak. Erakunde horrek saria finantzatzen du maila bakoitzean 3.000 euro jarritz.

Zehazki, "Erabiltzaileak diren pertsonentzako arreta" modalitatean, Nafarroako Gobernuak "Etxez etxeko arreta-zerbitzuaren jarraipena eta ebaluazioa, gustura al daude?" proiektua saritu du, Alloko zonaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak egindakoa. Ekimen horri esker, etxez etxeko arreta zerbitzuaren egitura berrantolatu da joan-etorrien denborak optimizatzeke eta zuzeneko arretarako ordu gehiago izateke; gainera, erabiltzailearen inguruan eta haren zaintza pertsonalean hobekuntzak lortu dira. Saria etxez etxeko arreta zerbitzuaren arduradun Javier De Miguel Marqués-ek jaso du.

Aldiz, "Enpleguaren kalitatean" saria Pauma SL enpresak jaso du "Kontziliazio-neurrien banakako kudeaketa" proposamenagatik. Proiektu horrekin bere langileen kontziliazio-beharrak banaka kudeatu ditu; hala, 2001ean, haien % 93a era horretako neurriren batez baliatu da. Saria Pauma SLren erantzukizun sozial, enpresako eta berdintasunerako arduradun Ana Ozkoidi Iribarrenek jaso du.



Ezkerretik eskuinera: Alloko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko José De Miguel eta Lourdes Arroyo, Alli kontseilaria; Paumako Ana Ozkoidi eta Francisco Calero; eta Miguel Echarri.

Sari horrekin Nafarroako Gobernuak publikoki aitortu nahi du gizarte zerbitzuen arloan esku hartzen duten erakunde publiko edo pribatuen lana, eta haien jardueran jardunbide egokiak inplementatu izana gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen arretan nahiz bertako langileen enpleguaren kalitatean. Jardunbide egoki horiek zabaldu eta jakitera ematea da kontua, halaber, beste eremu batzuetara zabal daitezen eta beste erakunde nahiz zentroentzat pizgarri izan daitezen bide beretik ekimenak hartu ahal izateko.

Kalitatezko mailak sendotu

Bere agerraldian, Alli kontseilariak agerian utzi du "kalitatezko mailako sendotzearen alde" egiteko beharra dagoela zerbitzua beraiena nahiz erabiltzaileak diren pertsonen arretan. Alde horretatik, kontseilariak aipatu du bere Departamentuak, [Bikaintasunerako Nafarroako Fundazioa](#) erakunde publikoarekin batera, gizarte-zerbitzuen kalitatezko sarea jartzeko lanean diharduela, "gizarte zerbitzuetara jotzen duten pertsonentzako arretan kalitatezko eta hobekuntzako prozesuak bultzatzeko" xedearekin.

Aldiz, Tomás y Lydia Recari fundazioko lehendakariordeak Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kalitatearen Sariaren helburuen berri eman du, eta bere nahia azaldu du "kontrastatutako jardunbide egoki gehiago" izan daitezen sektore horretan eta erabiltzaileak diren pertsonen mesedetan.

Ekitaldiko musika-emanaldia Nafarroako Musikako Goi Kontserbatorioko haizezko hirukote batek eskaini nahi du. Hirukote hori Sofía Catalán Vitas, José Crespo Grau eta Irene Gil de Sotok osatu dute, eta Isaac Albéniz-en "Capricho catalán" eta Leopold Mozart-en "Allegro" piezak interpretatu dituzte.

Epaimahaia eta balorazio-irizpideak

Sariaren bosgarren edizio honetan, epaimahaia honako hauek osatu dute: Gizarte Politiken kontseilari Iñigo Alli Martínezek; Tomás y Lydia Recari fundazioko lehendakariorde Miguel Echarri García; Plangintza, Kalitate eta Ikuskaritza Zerbitzuko zuzendari Pedro Grávalos Falces-ek; UHUNeko irakasle Luis Arbea Aranguren; Lizarrako San Jerónimo Zaharren Egoitzako zuzendari David Cabrero del Amok; eta Bikaintasunerako Nafarroako Fundazioko zuzendari Iñaki Arana García. Arbea izan da epaimahaiburu eta Grávalos idazkari.

Epaimahaiak, oro har, jardunbide egoki horiek gizarte zerbitzuen beste arlo batzuetan orokortzeko aukera aztertu du, haren izaera berritzailea eta epe luzera ebaluagarriak diren emaitzak lortzea.

"Erabiltzaileak diren pertsonentzako arreta" modalitatean, epaimahaiak arreta berezia jarri du jarduera horiek familia-ingurunean duen eraginean eta erabiltzaileak diren pertsonen gizarte-sareetan. Kontuan hartu dituzte ere: norberaren ongizatea, norberaren garapena, gizarteratzea eta onura fisiko zein materiala.

Aldiz, "Enpleguaren kalitatea" modalitatean, epaimahaia oinarritu da egoera ahulenetan edo arriskuko eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen laneratzea aztertzen. Gainera, beste zenbait gai ere azpimarratu dituzte: kontratazioa, garapen profesionalak, lana eta familia bateragarri egitea, eta langileen bizi-kalitatea hobetzea.

Aurreko edizioetan saritutakoak

Sari honen aurreko edizioetan honako erakunde hauek izan dira sarituak:

- 2011: San Jerónimo Zaharren Egoitza, lokailuak kentzeagatik; eta Nafarroako Nuevo Futuro Elkarte, estresa ikuskatzeko espazioengatik.

-2010: Ilundáin Haritz-Berri fundazioa, gazteentzako laneratze-programagatik; eta Nafarroako Nuevo Futuro Elkarte, bere langileen lan-baldintzengatik.



Ezkerretik eskuinera: Alli kontseilaria, De Miguel eta Echarri.

-2009: Elkarkide, buruko gaixotasuna duten pertsoekin izandako esku-hartzeagatik. Anfas-entzako accesita.

-2008: Tasubinsa, adimen-urritasuna duten nafarrei emandako arretagatik. Xilema elkar-tearentzako accesita.

Galería de fotos



Ezkerretik eskuinera: Alli kontseilaria, Ozkoidi eta Echarri.